



LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2016-03-01

BILERA ZENBAKIA: 28

ORDUA ETA LEKUA: 19tan Itsasondoko Udalean

PARTEHARTZAILEAK: 5 neska eta mutil 1

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. Etxean bakarrik bizi direnen eta bakarrik bizi ez arren Ttipi Ttapa programan parte hartzeko zailtasunak izan ditzaketenen argazkia:

Gizarte Langileak kuadro bat osatu du 85 urtetik gora dituzten adinekoak batetik eta menpekotasun egoeraren bat dutenena bestetik kontutan hartuz. Pertsona hauen egoera zein den aztertu du herriko medikuarekin batera eta ttipi ttapa programan parte hartzera animatuko zaie eskutitz baten bidez. Eskutitzak martxoan zehar bidaliko dira baina bai gizarte langilea eta bai medikua ere, denak parte hartzera animatzen ari dira dagoeneko.

Lantaldean komentatu da, jende gehiagok parte hartzen duela orain ttipi ttapan eta gizarte langileak planteaturiko zaintzaile profesionalen laguntzaz ere azaltzen hasi dela herritar bat. Gainera taldea oso gustora dago soinketa klaseekin eta luzatzeko nahia adierazi dute, aukera izanez gero behintzat.

Itsasondon 4-5 pertsona bizi dira bakarrik eta zailtasun egoeraren batean baina hauetako ia inor ez dago bakardade egoeran. Denek dute familiaren bisita edo zaintzaile profesionala. Bestalde, bakarrik egotea erabaki dutenak ere badaude. Hala ere egoera hauen jarraipena egingo da gizarte zerbitzuetatik eta bakardade egoerak ekiditen saiatuko gara, pertsonak horrela nahi badu behintzat.

Ttipi ttapa programaren jarraipena ere uztailean egingo da eta honen eboluzioa aztertuko da gizarte langileak bidalitako eskutizetatik zenbat jende gehiago animatu den ikusiz eta bestetik parte hartzaileei erregistro sinple bat egiteko eskatuko zaie, kopurua, generoa eta parte hartzaile berriak identifikatzeko.

2. Denboraren bankua:

Lantaldean bi dimensiotan lan egiteko tresna aurkeztu dute. Batetik makro mailan (edo kolektiboen topaketa) eta bestetik mikro mailan (banakakoen topaketa). Bi maila hauen helburuak ezberdinak diren arren, filosofia berdinetik abiatuko



lirateke eta herritarren arteko sarea lortzea litzateke helburu nagusia bien kasuan (sare xumea, autogestionatua eta partehartzailea herritik herrira).

Kolektiboen arteko sarea, herriko talde eragile guztien topaketa gunea litzateke (komisio ezberdinak, elkarteak...) eta herritar denek parte hartu ahal izango lukete kolektiboen izenean. Sare honen bidez, elkarren berri eman, elkar ezagutu eta auzolana bultzatuko litzateke. Taldeen arteko kohesioa eta herri mailako filosofia globala bultzatuko lukete interesak, beharrak eta ikuspuntuak elkarbanatuz.

Ongizate Lantaldean oso beharrezkoa ikusten da sarean topagune hau izatea, denek berdinetik berdinerara herrian bere tokia izan dezaten. Hala ere, zailtasunak planteatzen dira, aurreko saiakera batzuetan izandako porrotetatik eta topagunea modu erakargarri eta arinean antolatzeko erronkatik. Apirileko ongizateko lantaldean SAREAN topagunea nola antolatu erabakiko da eta zinegotzien mahaian ere aurkeztuko da.

Banakakoen arteko sarean (mikro) modu xume batean hasteko ideia jarri da mahai gainean eta pauso ezberdinak aurreikusi dira:

a.SENSIBILIZAZIOA: Herritarrak denboraren bankuaren inguruan duten iritzia jasotzeko, euren espektatibak kontutan izateko baita beharrak ere, ezinbestekoa dela baloratu dugu sensibilizazio kanpaina bat martxan jartzea. Honen helburua herritarrei pentsatu araztea da batetik eta baita gai honen inguruan duten informazioa aztertu eta horren arabera lana egitea ere. Apirilerako sensibilizazio kanpaina hau nola burutu prestatuko da.

b.DEIALDI INFORMATIBOA: Sensibilizazio kanpainaren ondoren, deialdi informatibo irekia egin daitekeela pentsatu da eta bertan lantaldean landu den proiektua auzeratu.

d.DEIALDIA INTERESA DUTENEI: Proiektuan parte hartzeko interesa dutenekin bilera bat egingo litzateke eta bertan interesen arabera pixkanaka erabakiak hartzen joateko gaiak landuko lirateke.

e.ANTOKETARAKO ERABAKIAK: TOKIA AUKERATU, MODUA...: Erabakiak parte hartzaileen artean artuko dira modu dinamiko eta sinplean, beharren arabera eta pixkanaka egitasmoak herritarrekin batera forma hartuko du, modu askean.



3. HARRERA PLANA

Harrera planarekin aurrera jarraituko dugu. Udaleko harrera zerbitzuko arduradunari gizarte langileak prestatutako eskutitza emango diogu eta erroldatzen diren guztiei eskutitza banatu eta telefono zenbakia hartuko die. Bestetik 2016ko urtarrietik erroldatu diren guztien zerrenda ateratzen saiatuko gara eta hauei eskutitza bidaliko diegu etxera.

Bi saio informatibo adostu dira bata ekainaren 21ean eta bestea urriaren 25ean, biak arratsaldeko seietan izango dira.

Materiala apirilera prestatuko dugu denon artean eta gainerako batzordeei ere pasako diegu, osatu dezaten.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Parte hartzaileen erregistro kuadroa ttipi ttapa	apirila	Erkuden
Ttipi ttapa eskutitza bidali	apirila	Itsaso
Sare topagunea nola antolatu	apirila	Haizea, Maider
Sensibilizazio kanpaina	apirila	Haizea, Maider
Ongi etorri orria harrera zerbitzuan utzi eta etorri berrien zerrenda jaso	apirila	Itsaso

HURRENGO BILERA

Hurrengo bilera, apirilaren 5ean, asteartea arratsaldeko 7tan Udaletxean.

Gai ordena:

- SAREAN topagunea nola antolatu.
- Sensibilizazio kanpaina nola hasi denboraren bankua martxan jarri aurretik.
- Desfibriladorearen zerrenda jaso eta ikastaroa antolatu.
- Harrera plana: materiala osatu
- Tipi Tapa programaren barruko gimnasia ikastaroekin nola jarraitu.
- *Berdinbidean eta Etxejabetzeen aurkako zerbitzu juridikoa (informatu lan taldea)